

## GERNIKA BONBARDAKETA

1

2 BALIÑO 21

... zuhaitzaren kontra geunden, besteek ez ikusteko. Gure ingurutik pasatzen ziren balen txistua entzuten genuen, txirrist! Txirrist! ...

3 ANDONE 7

zelan egoten dan iletargiegaz, todo Claro, como si sería , esto, ...dana sue, dana sue, harek botaten eban klaridadie,..bueno!

4 RANKIN 18

Steerrek artikulu bat argitaratu zuen Gernikako bonbardaketari buruz: apirilaren 28an, asteazkenean, New York Times-eko lehen orrialdean, eta The Timeseko azken orrialdean. Artikulu horrek, Espainiako Gerra Zibileko beste edozein berrik baino eragin handiagoa izan zuen.

5

6

7 BALIÑO 1

Gernika, orduan, oraingo erdia ere ez zen izango; aspaldian asko hazi da eta. Orduan Gernikan denok ezagutzen genuen elkar. Familia handi baten antzekoa zen...

8 ANDONE 1

Ordurartien eskolara ibiltzen genizan egunaro eta amari lagunduten plazara, joaten ginezan, astoa eruetan, eroaten amari, ba, esniek errepartiduteko, eta gero, gu, eskolara. Hori da, bederatzirterarte. Eta gero, etor zan bonbardeoa.

9 MONTERO 5

Gernika Erdi Aroko herria da, XIVgarren mendekoa. Une hartan bost mila biztanle ere ez zeuzkan. Inguruko baserritarrentzako truke-lekua zen, batez ere. Industria apur-apur bat ere bazeukan, su-armei lotua batipat. Baina garrantzizko elementu bat dago hor: Bilborekin ondo lotuta zegoen, trenez. Horixe izan behar dugu kontuan Gernikaren egoera ulertzeko 1936an, edo gerra-aurrean, behintzat.

10

11 ITZIAR 1

Da nonor etorri jakon amari esaten: Gerundin! Gerundina euki eban izena gure amak. Gerundina, geur gerrie! Ja hasi de gerrie!! Ez da izango! Ze egin beharko dogu! Enei Martzelino, zer ingo dogu. Bueno ba sartu gauzek, ze hemen iztu gauz, iztu gauz!

12 MONTERO 9

36ko uztailaren 18koa, izatez, estatu-kolpea izan zen. Estatu-kolpe hark porrot egin zuen, eta orduan ikaragarritzko zatiketa gertatu zen Espainiako gizartean. Alde batetik armadako atal bat zegoen, eskuineko indar katolikoak bere alde zituela; eskuineko indar tradizionalak altxamenduaren alde zeuden. Beste alde batetik Fronte Popularra zegoen, ezkerreko indarrekin. Haiek errepublikaren alde

egin zuten.

13 BEEVOR 3

30eko hamarkada hasieratik ikaragarritzko polarizazioa ikusten hasi ginen Europan. Politika arloan zentroa erabat galdu zen. 1933an Hitlerrek agintea hartu zuen Alemanian, eta Italian hartua zeukan Mussolinik. Laster sortu zuten ardatza euren artean. Beste aldean Sobiet Batasuna zegoen, jakina; baina demokraziak, Britainia Handian eta Frantzia, adibidez, oso egoera korapilotsuan zeuden. Frantzia batez ere, ia-ia iraultzak leher egin baitzuen bere mugen barruan; iraultzak edo gerra zibilak.

14 MAIER 29

Izatez, Hitlerrek ez zeukan ezelako interes estrategikorik Europa mendebaldean. Baina 30eko hamarkadaren erdialdera kontuan hartu behar izan zuen, nahiz eta berak artean besterik pentsatu, Britainia Handia ez zela begira geratuko bera ekialderantz oldartzen bazen. Espainiako gerraren inguruan Mussolinirekin hitzarmenak eginez gero, berriz, aliatu hori askoz estuago lotuko zuen berarekin, berez-berez.

15 BOMBIN 3

Uztailaren 18an... Nik neska-laguna neukan Erandion, eta neurebaitan: "Arratsaldean neska-laguna ikustera joango naiz, eta paseatzera joango gara", beti bezala...

"Aizu!, Afrikan altxamendua izan dela!", "Altxamendua?, Norena?", "Armadaarena, kontxo! Galdetzea ere!" Eta zer?

"Bueno, eskopetak hartu behar ditugu, eta estalki bana" Baina nik ez daukat eskopetarik. Eta berak: "Eskopetak eta errebolberrak konfiskatu behar dira. Eta patruilak egitera!"

16 BEEVOR 8

Frankok mezulariak bidali zizkion Hitlerri. Hegazkinak eskatu zizkion Afrikako tropak Espainia hegoaldera garraiatzeko, Gibraltarreko itsasartea zeharkatuta.

17 BEEVOR 10

Uztailaren 25ean Frankoren bi mezulariak Berlinera heldu ziren, Lufthansako hegazkinean. Alemania hegoaldera eraman zituzten, Bayreuthera: hantxe zegoen Hitler, Wagnerren opera-jaialdian. Opera amaitzean Hitler gogo berotuta zegoen, eta bat-batean laguntzea erabaki zuen. Junker 52ak bidaltzeko agindu zuen, aire garraiorako zein bonbardaketetarako. Goering kitzikatuta zegoen, bere Luftwaffea probatzeko aukera izango zuelako. Kode-izena eman zion: Voyessauber, hau da, "su magikoa". Operako azken ekitaldiaren izena da.

18 SALAS 4

Hauxe da Alemaniatik Espainiara heldu zen lehen hegazkina. Modelo hauxe, gainera: garraio-hegazkina. Garrantzi handia izan zuen itsasarteko aire-zubian. Hegazkin hauek heldu zirenean egunean bostehun gizon pasatzen zituzten; bataioli osoa.

19 SALAS 5

Fuselajearen barruan sei hodi bertikal jarri zizkioten. Halako bakoitzak 250 kiloko bonba bat hartzen zuen, edo 50 kiloko lau bonba, bestela. Kilo bateko bonba su-eragileak ere sar zitezkeen, 12 bonbako xortetan.

20 PEDRIALI 3

1936ko uztailaren 31an hasi ginen Espainian parte hartzen. Frantziako gobernu armak eta hegazkinak bidaltzen ari zen Espainiako errepublikari, eta horrexegatik hartu zen erabakia. Lehenengo espedizioa 12 hegazkinekoa zen. Sardiniatik abiatu eta Nadorrera heldu ziren, Maroko espainiarrean.

21 SALAS 1

Espainiako gerra zibila hastean, abiazioan aldaketa handiak gertatzen ari ziren. Espainiako hegazkin militarrek zaharkituta zeuden, denak; baina frantziarrak ere bai, eta ingelesak, erdiak baino gehiago. Alemaniarrak ez, eurek 33ra arte ez zuten hegazkinik izan eta. Debekatuta zeukaten Versaillesko Itunagatik, baina ez zioten jaramonik egin.

Italiako Fiat ehiza-hegazkinak heltzean dena aldatu zen; orduko onenak ziren. Gerraren martxa aldatzen hasi zen apur bat. Hegoaldeko saldoak Sevillatik Toledoraino eta Maquedaraino aurreratu ziren, arazorik gabe.

Baina orduan Errusiako hegazkinak heldu ziren, indar espedizionario sobietarrak. Haiexek izan ziren lehen hegazkin modernoak Espainian.

22 PEDRIALI 7

Alemaniarrek italiarrak behar zituzten, batez ere ehiza-hegazkin italiarrek euren bonbaketariak zaintzeko; oso motelak zirelako, eta errazak erasotzeko. Eta euren ehiza-hegazkinak, Heinkelak, ez ziren gauza ehiza-hegazkin errusiarrei aurre egiteko.

23 BEEVOR 13

Espainiako gerra zibileko lehen atala zera izan zen: Afrikako legionarioen eta Marokoko tropen aurrerapen azkarra Andaluzian zehar. Hegoaldean hasi eta Madrileraino.

24 RANKIN 3

George Steer The Timesek bidali zuen Espainiako gerra zibilean korresponentsala izateko, mugatik. Gerrarekin lehen kontaktua, beraz, Euskal Herriko iparraldean izan zuen. Gero The Timeseko lana utzi egin zuen Abisiniari buruzko liburua idazteko, eta nazionalen lurraldean sartu zen. Liburua Burgosen bukatu zuen eta gero Toledora joan zen. Hura Francoren kontrolpeko lurraldea zen dena, eta berari ez zitzaion atsegingarri izan.

25 BEEVOR 06

...Orduan frantziarrak britainiarrengana hurbildu eta Ez Parte-hartzeko Batzordea egitea eskatu zieten. Beharbada britainiarrek eurek ere horixe izango zuten gogoan; kontua zera da, azkenean akordioa lortu zutela. Eta, errepublikaren mesedetan, "segurtasun-hesiaz" inguratuko zutela Espainia inongo armarik inora ez heltzeko.

26 RANKIN 06

George Steerek ironiaz idazten du horretaz. Begiratu "Gernikako arbola" bere liburuaren atzeko azalean, eta Espainian ez parte-hartzearen lehen eragina azaltzen du. Hitz bitan: ez parte-hartzeak faxisten garaipena esan nahi du.

27 BEEVOR 13

Frankok Madrilen kontrako erasoak jo nahi zituen, behin eta berriro. Azkenean, 1937ko udaberrian, kontseilari alemaniarrek konbentzitu egin zuten: iparraldea erasotzea zen egokiena, bestela porrota izango zuten berriro.

- 28 MAIER 6  
Une hartan altxamenduak arrakasta bat behar zuen, bizkor. Eta hantxe zegoen, iparraldean, zinta estu hura, Bizkaiko Golkoaren kostan.  
Une erabakigarria izan zen. Orduantxe bilakatu zen Condor Legioa gerora Espainiako gerra zibil guztian izango zena, hau da: aire-erasorako formazio trinkoa eta autonomia.
- 29
- 30 BEEVOR 15  
Errepublikarren eskualdea iparraldean ez zegoen bat eginda, inondik inora. Erdian Asturias eta Santander zeuden; haietan sozialistek eta komunistek agintzen zuten. Baina gero Euskal Herria zegoen; euskaldunak askoz kontserbadoreagoak eta katolikoagoak ziren, buruzagiak kristau demokrazian zeuden. Arrazoi bakar bategatik jarri ziren errepublikaren alde: errepublikak autonomia agindu zielako.
- 31 MONTERO 10  
Bazeuden Frankoren aldeko euskal katolikoak, eta errepublikaren aldeko euskal katolikoak. Katoliko nazionalistak errepublikaren alde jarri ziren, autonomia babesteko. Gauza bitxia zen, edozein modutan, alderdi katoliko konfesional bakarra izango zelako errepublikaren alde. Garrantzi estrategiko handia zeukan horregatik, errepublikaren aldeko indar guztien artean.
- 32 RANKIN 4  
Steerek esperientzia gogorak izan zituen nazionalen aldean: toki lazgarriak, jendea ikaratuta... Baina Euskal Herrira heldu zenean, 37ko urtarrilean, Euskal Gobernuak ongietorria eman eta esan zion: "Ikusi nahi duzun guztia". Lagundu egin nahi zioten, eta kontaktu onak zeuzkan. Hori laguntza handia da kazetariarentzat.
- 33
- 34 MONTERO 12  
Gernikatik frontea hurbil zegoen, hogeit hamar kilometro harantzago. Frontean ez, baina hurbil zegoen.
- 35 ITZIAR 3  
Hainbeste koartel egon ziren: Sta. Clarako mojanoa be, koartela izen, Mersedekoak be bai, koartela izen zan eta Agustinoetan be bai, ta leku guztiek handiak izen ziren koartelak egin ziren.
- 36 BOMBÍN 25  
Batzuetan frontean egoten ginen. Baina atzealdean geratuz gero tapotza ginela esaten zuten, besteek lerrorik apurtuz gero guk kontraerasoa jotzeko. Horrelaxe geunden hemen, Gernikan.
- 37
- 38 PEDRIALI 8  
Euskal Herriko kanpainarako 73 hegazkin legionario zeuzkaten, Alemaniarrak 80 inguru ziren, eta espainiarrak 16. Espainiarrak azterketak egiteko ziren. Alemaniarrak, Junkerrak, bonbaketari astunak. Eta italiarrak, berriz, ehiza-hegazkinak.
- 39 MAIER 7

Aurrerakada hari laguntzeko aire-erasoak jo zituzten, frontean eta askoz barrurago ere bai, erreserben kontra; baina dibisioko agintearen kontra ez. Eta zibilekin ez zuten ezelako konturik izan; halaxe idatzi zuen Richtofenek.

40 BEEVOR 12

Condor Legioko komandante nagusia Hugo Sperle jenerala zen. Bera Frankorekin zegoen, honen kuartel nagusian. Gizonik garrantzizkoena, berriz, kanpainako komandantea zen, Wolfram Von Richtofen koronela. Gizon ankerra, Luftwaffeko ofizialek Alemanian gorroto handia zioten. Eta armadakoek ere bai.

41 SALAS 16

Orduan hiru hegazkin-talde zebiltzan iparraldean. Eta hiru hegazkin-taldeen Estatu Nagusi Bateratuko Buruzagia Richtofen zen. Beraz, Richtofen Condor Legioko Estatu Nagusiko buruzagia zen, baina Estatu Nagusi Bateratuko buruzagia ere bai.

42 MAIER 8

Richtofenek bere joan-etorri guztien oharrak hartzen zituen, gero gauean testu luzeagoan idazteko. Eskuizkribu horiek Berlinera bidali eta makinaz idazten zituzten; baina ez ziren Luftwaffeko edo Condor Legioko artxiboetan gordetzeko. Ezin zen haietako aipurik erabili, ez eta egunkari pertsonal hori berori aipatu ere. Horregatik, deklarazio horiek oso sinesgarriak dira.

43 RANKIN 11

Steer hotel honetan bizi zen, beste kazetariekin. Bonbardatzen ari ziren hirian bizi zen, beraz, eta handik frontera joaten zen. Euskal Herria ez da handia, erraz joan daiteke edonora. Eta borroka hiritik gero eta hurbilago zegoen.

44 MAIER 9

Alemaniarrek euren kideak zeuzkaten Frankoren armadako unitate guztietan, eta haiekin zuzenean komunikatzen ziren. Horregatik, sarritan, alemaniarrek egoera militarren ikuspegi orokor hobea zeukaten agintari espainiarrek baino. Horren ondorioz, eta Richtofenek halaxe idatzi zuen, eragin handia izaten zuten ekintzan; erabakigarria.

45 SALAS 20

Richtofenek argi-argi zeukan ikuspegi militarretik zer zen egokiena. Molak lehenengo Durango hartzeko agindua eman zuen, eta Durangoren ondoren, Gernika. Baina Richtofenek, egoera kontuan hartuta, alderantziz hobe izango zela ikusi zuen. Richtofenek ahalegin guztiak egin zituen Vigon konbentzitzeko, Solchagaren Estatu Nagusiko Buruzagia. Baina Molak bere erabakiari eutsi zion: lehenengo Durango hartu, eta gero Gernika.

46

47 BALIÑO 4

Bonbardaketaren aurreko egunean dena normal zegoen, eguerdira arte. Baina hamabi t'erdia aldera edo, hainbat hegazkin agertu zen.

48 SALAS 17

Apirilaren 26an Condor Legioak bi bonbardaketa egin zituen. Goizean Gerrikaitzeko bidegurutzearen kontra. Gero, arratsaldean, errepide horixe mozteko, baina aurrerago; eta kostakoa ere bai. Biek bat egiten zuten Gernikako edo Erreterriako zubiaren aurretxoan.

49 RANKIN 13

1937ko apirilaren 26a, astelehena, gerrako beste edozein egun bezalakoa zen, itxuraz behintzat. Kazetaria Carlton hotelera joan, gidaridun autoa hartu eta abiatu egin ziren.

Arbatzegi-Gerrikaitz izeneko toki batera heldu ziren, Gernikatik ekialdera. Bi auzo dira bidegurutze batean, eta goizean bertan bonbardatu zituzten.

Bat-batean mendi ostetik dozena erdi Heinkel 51 hegazkinak agertu ziren, metrailadoreekin, eta euren kontra tiroka hasi ziren. Zulo batean sartu eta etzanda zeuden; eta "hegazkintxo madarikatuak" – hala deitu zien berak – metrailadoreaz tiroka jarraitu zuten.

50 BOMBIN 10

Frontea bitan zatitu nahi zutela pentsatzen genuen, Zornotzan moztu inguru honetako indar errepublikar guztiak harrapatzeko. Ez zitzaigun bururatu ere egin bonbak botako zituztenik jendearen kontra, helburu militarrik gabe.

51 MAIER 10

Richtofenek borroka-lerroak blokeatuta zeudela zioen, eta horregatik eraso behar zuela Gernika. Helburu taktikoa izango zen. Apirilaren 25ean euskal fronteak porrot egin zuen. Eta berak hantxe ikusi zuen aukera indar euskaldunak, multzo handi bat behintzat, Markinaren inguruan harrapatzeko.

52 BALIÑO 4

...Hegazkina, hegazkina! Hegazkina zetorreanean hemen goian bandera ateratzen zuten, eta kanpaia jo Santa Marian.

53 ITZIAR 4

sirenien jotzen eban, eta orduntxe iztutzen ginen... Zer pasetan da?... Abioie dator... ez dakit zer... da... Nora...

54 PAKO 3

Aitak esan zigun: "Kanpaia jotzen dutenean, denok babeslekura, hara gora!" Bera adi-adi zegoen, eta kanpaiak jotzean eraman egin gintuen.

55

56 ITZIAR 4

Bat egon zan eh... Ayuntamentuen, beheko partean. Hantxe egon zen bat, holan zarratute, baina hori kalekoak... bueno, bueno,... han setente edo esan zuten, baina... hil zen han.

57 BALIÑO 6

...Bonbardaketarik edo egonez gero babeslekuetan ez sartzeko esaten ziguten. Landetan zehar ihes egiteko...

58

59 SALAS 8

Lehenengo azterketa-hegazkina heldu zen Gernikara, Dornier 17a, motore biko hegobakarra, lurreratze-tren barneragarria eta deriba bikoitza. Argi zegoen.

Honek Burgostik Gasteizerako bidea egin zuen, frontea zeharkatu eta aurrera jarraitu. Baina Oitzetik,

gutxi gorabehera, zuzenean Gernikara egin eta zubia bonbardatu zuen. Honek ekialdetik mendebaldera egin zuen, zubiaren luzetara. Bi iraganaldi izan ziren.

60

61 ANDONE 4

“ Aiba! Abioie, abioie bat dar-darka hasi zan abioie eta, eta eman bueltie, bakar horrek eta ensegida, hiru, hiru.

Eta orduen hasi ziren zireka, buiiii, buiiii, ...

62 BALIÑO 7

Lehenengo bonba entzutean esan genuen, “Non erori da?” “Hor, San Juan Ibarra”. “Ba goazen begira, ea zauriturik edo dagoen”. Baina orduan hiru hegazkinak heldu ziren.

63 .

64 SALAS 8

Savoia 79ak Espainiara heldu-berriak ziren, ekintza apur batzuk baino ez zituzten egin Aragoiko frontean. Iparraldera ez ziren inoiz etorri. Horiek Soriatik irten ziren, bonbaketari italiar guztiak Sorian zeuden.

65 PADRIALI 9

Italiarrek parte hartu zuten Espainiako agintariak hala eskatu zirelako. Soriako basera deitu zuten, eta hegazkinak ekintzarako gertu zeudenez, Condor Legiokoek baino lehenago parte hartu zuten. Aginduak 48 zenbakia dauka, eta hauxe dio:

66 PEDRIALI 12

“Helburua: Gernikako zubia bonbardatzea. Etsaia Bilborantz doa Gernikan zehar. Hemen hainbat errepidek bat egiten dute; ekialdetik datoz eta Gernikako zubian batzen dira, herriaren ekialdean. Herria, arrazoi politiko nabariengatik, ez da bonbardatu behar.”

Beraz, han abiatu ziren hiru S79ak, 50 kiloko 36 bonbarekin. Nahikotzat zeuzkaten zubitxo hura apurtzeko, Oka ibaiaren gainean, herriaren kanpoaldean.

67 SALAS 8

Horiek Soriatik heldu ziren, hegoaldetik iparralderantz, eta Gernika baino askoz ekialderago heldu ziren itsasora. Orduan, Elantxobe parean, biratu eta Mundakatik sartu ziren. Zubia iparretik hegorantz bonbardatu zuten.

68

69 BALIÑO 7

San Juanera heldu eta hantxe hasi ziren hirurak bonbak botatzen. Lurrean etzan behar izan genuen, une hori igaro arte. Orduan honaino ailegatu ginen, eta babestu eta Txorraburun geratu ginen bonbardaketa igaro arte. Hortixek ikusi genuen dena.

70 PEDRIALI 15

Buruko hegazkinak ematen zituen aginduak beste guztientzat. Artilleroak Castellani kapitainaren hegazkina lerro zuzen batean jarri zuen; bonbak askatzeko gertatu zen, tarte erregularretan erortzeko. Eta patruilako beste hegazkinek berdin egin zuten.

71 PEDRIALI 17

Castellani kapitainak txostena idatzi zuen Gernikako ekintzatik itzultzean. 16:30ean heldu ziren helburura, eta 3.600 metroko garaieratik egin zuten jaurtiketa. Txostenak dio: "Jaurtiketa urrunetik egin dugu, eta tren geltokia jo dugu besteak beste".

72 PEDRAILI 15

Aire-argazkia ere badaukagu, eta ondo frogatzen du: hau da, bonba batzuk helburutik kanpo erori eta tren-geltokia jo zutela, etorbidearen parean.

73 ANDONE 4

batzuk hara gora, non sartuko gara,... nora orain joango gara?  
Ta orduen gu, arin honaixe, hona azpire!

74 PACO 6

Han barruan ez geneukan ez argirik ez ezer, denok estu-estu, denok geldi-geldi. Baten batek kandelaren bat edo piztu zuen, baina ez zegoen argirik, ezer ere ez.

75 PACO 5

Orain ikusi eta zurtz eginda geratu naiz. Hau ez da nik gogoan neukan bunkerra; umea nintzen, eta niretzat handi-handia zen. Han auzokoak egongo ginen, auzoko batzuk, baina asko ez. Ehun ere ez, beharbada.

76 PEDRIALI 18

Patruila bat bidali zuten Junkerrak babesteko.

Ekintza honi buruzko berri bakarra Corrado Ricci tenienteak idatzitakoa da. Bi aldiz irten zela idatzi zuen, lehenengoan ez zituzten aurkitu hegazkin alemaniarrek esandako lekuan eta.

77 SALAS 11

Ricci tenientea, bost Fiateko taldearekin, Gasteizeko basearen inguruan patruilak egiten ari zen alemaniarren talde nagusiaren zain. Baina ordu erdi baino gehiago atzeratu ziren. Ricci harrituta zegoen, Condor Legioko alemaniarrek oso, oso ordukoak ziren eta. Horrexegatik zegoen harrituta. Ordu erdi baino gehiago zain, eta agertu zen azkenean Heinkel 111, eta Gernikaraino lagundu zioten.

78 ITZIAR 5

abioiak, handik bertatik zelan sartzen ziran, brrrr... bajatzen ziren, eta zelan bueltie ematen zen, Eta han egon zan pobre bat edo.... horrek eh... ganorabakoak izaten direnak. Eta hasi zen igoten... eta abioia etorri zan eta... insultetan ipini zen pilotoari,. Baina insultatu, baina zelan insultatu, eta pilotoa eiban abioiegaz holan... beti esaten dot ¿eh?...: haren gafak neuk ikusi nebasan eh., haren pilotoaren gafak nik ikusi nebasan, eta hareri andreari... ta-ta-ta-ta-ta-ta, hantxe hil

79 SALAS 11

Riccik ordu erdi egin zuen Gasteiz inguruak patruilatzen; eta gero, Gernikara joan eta itzuli, ba erregairik gabe zeuden. Eta lur hartu zuten. Baina hori baino lehenago formazioa etortzen ikusi zuela esan zidan, 17 Junker 52. Zalantza hortxe daukagu oraindik, 17, 18 ala 19 izan ziren. Baina, dena dela, ez da oker handia.



- 80 MAIER 15  
Aurreko ekintzetan oinarrituta, Condor Legioa harro zegoen 2.000 metroko garaieratik helburutik 300 metro baino gehiago urruntzen ez zirelako. Orduan ba, helburua Gernikako zubia, Errenteria eta errepideak izanez gero, Condor Legioko inork ere ezingo zuen esan bonbak herri barruan eroriko ez zirenik.
- 81 SALAS 11  
Junkerrak heltzean argi zegoen ze bide jarraitzen zuten. Itsasoraino joan, frontearen paretik, eta iparretik hegorantz sartu, Mundakatik.
- 82 BALIÑO 18  
Hegazkinak handik zetozen, Oiz menditik, Oizko antenak dauden ingurutik. Handik honantz etorri, itsasadarrerantz sartu, bira egin, itsasadarretik sartu eta bonbak botatzen hasi ziren.
- 83 SALAS 11  
Lehenengo eskoadrilak hurbilketa maniobra guztiak egin zituen, haizearen abiadura kontuan hartuta eta abar. Bigarrenak ezin izan zuen, leherketen ondoren zubiaren inguru guztia ketan zegoelako. Beraz kearen gainera bota zituen bonbak. Eta hirugarrenak, eta hau von Kraftek berak kontatu zidan, berdin egin zuen; kea eta sua baino ez zuten ikusten, eta gainera bota zituzten bonbak.
- 84 BALIÑO 19  
Guk, gu geunden lekutik, ederto ikusten genuen nola metrailatzen zuten, dena ikusten genuen. Eta gero bonbak erortzen ziren. Lehenengo horizontalean, baina gero zutitu eta honela erortzen ziren.
- 85 PACO INT BUNKER  
Hemen itzelezko durunda zegoen, etengabe, danba, danba! Apurtxo batean gelditu, amaitu zela pentsatzen genuen, eta berriro durunda. Denak bota zituzten.
- 86 PACO 5  
Eta danba, danba, buruko mina eginda geunden. Eta denok makilatxoarekin. Baztertu apurtxo bat, eta berriro. Ezin genuen arnasarik hartu eta. Umeoi agirika egiten ziguten denek, "Ez kendu makilatxoak!" Edo, bestela, mukizapiarekin.
- 87
- 88 PACO 1  
Zera bai, gogoan daukat: handik irtetean amak esan ziguna: "Lurrekoak ez zapaldu, lo daude eta". Gero konturatu nintzen lo barik hilda zeudela.
- 89 BALIÑO 8  
Gernikara hurbiltzean, herriko sarreran, 7 edo 8 lagun aurkitu genituen burua zabalduta, hilda. Batzuk Gernikako semeak, Zipri Arrien, neure adinekoa zen.
- 90
- 91 SALAS 11  
Gernikako hondamendirik handiena bonbardaketaren ostean gertatu zen. Bonbardaketa amaitzean Gernikako etxeen ehuneko 15 edo, egongo zen hondatuta; baina azkenean %70 erre ziren. Hondamendirik handiena suagatik izan zen.

- 92 ANDONE 7  
zelan egoten dan iletargiegaz, todo claro, como si sería , esto, ...dana sue, dana sue, harek botaten eban klaridadié,..bueno!
- 93
- 94 BALIÑO 10  
Gori-gori ikusten zen dena, gori-gori. Eta etxean erretzean, lehen lehertu gabeko bonbak ere lehertu egiten ziren.
- 95 ITZIAR 7  
“ Aita! Aita! Neu naz, Aita!” Oratu neutsan nik eta,... Bai laztana, bai, hamen Ez dakizu, ... bost pertsona egon gara eta neu bakarrik gelditu naz hil barik ...
- 96 BOMBIN 11  
Emakume batzuk arineketan zebiltzan, oihuka eta garraxka. Baina guk zer egingo genuen ba! Gu militarrok laguntzera joan ginen, ahal genuena egitera, zaurituak atera eta abar. Baina zabor artean begira ezin ginen hasi, hura ikaragarria zen, ikaragarria. Oraindik bonba su-eragileak zeuden gainera, honelakoak, zuloxoekin.
- 97 RANKIN 14  
Euren kronikak idazten jarraitu zuten: ze ontzi heldu zen, ze eraso gertatu zen, ze herri bonbardatu zuten eta abar. Hainbat bonbardatu zituzten eta: Markina, Arbazegi eta Gerrikaitz... Han zeuden euren lanean, berandu jaten, espainiarren antzean, eta orduantxe heldu zen berria, telefonoz edo norbaitek ekarrita: Gernika sutan zegoela. Orduan kazetariak, dena bertan behera utzi, autoak hartu eta abiatu egin ziren. Berandu zen, gaueko hamarrak baino gehiago.
- Ekialdera egin zuten, eta gero iparraldera Gernikarantz. Eta zeruan gorritasuna ikusi zuten, mendi ilunen atzeko aldean. Herria sutan zegoen!
- Harantz jo zuten. Bonbaketaririk ez zegoen ordurako, baina bonba su-eragileak erabili zituzten, eta garretan zegoen dena.
- 98 SALAS 19  
Goizean Gerrikaitz bonbardatutako bonbaketariak berandu heldu ziren Burgosera. Bazkalorduan, arratsaldean Gernikako zubia bonbardatu behar zutela esan zieten; hain zuzen, von Kraft izango zen, hirugarren eskoadrilako burua. Guk asko idazten genion elkarri. Eta esan zidan goizeko karga berdina hartu zutela hegazkinetan. Sei hodi zeuzkaten: lau lehertzeko bonbekin bete zituzten, eta bi bonba su-eragileekin. Gero, hegazkineko zoruan beste kutxa batzuk zeuzkaten, bonba su-eragileekin. Haiak hegazkineko atea ireki eta zuzenean botatzen zituzten, oinekin bultza eginda. Bi soldadu eramaten zituzten hegazkinean, lan hori egiteko.
- 99 RANKIN 16  
Steerrek Gernikan jazotakoaren frogak hartu zituen. Bonba su-eragile distiratsuak ziren.
- 100 RANKIN 17  
Frogarik argiena bonba su-eragileek eurek zeukaten, gainean markatuta: Alemaniako arranoa, eta

“R.H.” eta “1936”. Hau da: “Rheindorf Factory 1936”. Bonbek egilearen marka zeukaten. Kazetariak froga horixe behar zuen.

L01 RANKIN 16

Bonba su-eragile haiek gero hemen, Londresko bonbardaketan erabilitakoak bezalakoak ziren, berdinak. Lehenengo Espainian probatu zituzten, beraz. Eta horren adibiderik larriena Gernika dugu.

L02 RANKIN LEE

Gernika, euskaldunen herririk zaharrena, euren tradizio kulturalaren zentroa, zeharo hondatu zuten atzo arratsaldean altxamenduko hegazkinak. Herri ireki hau frontetik urrun dago; bonbardaketa hiru ordu eta laurden luzatu zen, eta hegazkin alemaniarren flota handi batek egin zuen: Junker eta Heinkel bonbaketariak ziren, eta Heinkel ehiza-hegazkinak. Etengabe bota zituzten herri gainera 1.000 librarainoko bonbak, eta, kalkuluen arabera, bi libranko 3.000 bonba su-eragile, aluminiozkoak. Ehiza-hegazkinak, berriz, garaiera baxuko hegaldiak egiten zituzten herriko inguruetarantz, soroetan zehar babes bila zihoazenak metrailatzeko.

Egiteko moduagatik, eragindako hondamendiagatik, eta aukeratutako helburuagatik, Gernikak ez du parekorik izan inoiz historia militarrean. Gernika ez zen helburu militarra.

Badirudi bonbardaketaren helburua zibilen morala apurtzea zela, eta euskal herriaren bihotza hondatzea.

Bonbaketarien taktika interesgarria izango da agian zientzia militar berriaren ikasleentzat. Honelaxe izan zen: Lehenengo, hegazkin multzo txikiak bonba astunak eta eskuko granadak jaurti zituzten herri gainera, lehenengo auzo bat eta gero beste bat erasoz, ordenan. Gero ehiza-hegazkinak hurbildu ziren, hegaldi baxuan, ikaratuta babeslekuetatik irten ziren haiek metrailatzeko. Halako babesleku batzuk agerian zeuden ordurako, tona erdiko bonbek zortzi metroraingoko zuloak egiten dituzte eta. Ihesi zihoazen haietako asko bertan hil zituzten. Azokara eramandako artalde bat ere zeharo akabatu zuten. Badirudi honen helburua jendea berriro lurpeko babeslekuetara bultzatzea zela. Izan ere, gero hamabi bonbaketari agertu eta bonba astunak eta su-eragileak bota zituzten hondarren gainera. Herri ireki honen bonbardaketa-prozesua logikoa izan zen, edozein modutan: lehenengo eskuko granadak eta bonba astunak jendea uxatzeko. Gero metrailatzea, lurpeko babeslekuetan sartzeko. Eta gero bonba astunak eta su-eragileak etxeak bota eta biktimen gainean erretzeko.

L03 RANKIN 22

Garai hartan The Times egunkari handia zen. Parlamentuko kide guztiek irakurtzen zuten, pertsona inportante guztiek. Goi-mailako jendeak izan zuen gertakari haren berri: gotzainek, parlamentuko kideek eta horrelakoek. Eta erreakzio bizia sortu zen elizan, parlamentuan, sindikatuetan, errepublikaren alde zeuden taldeetan. Eta eskoletan eta abar. Ikaragarritzko haserrea piztu zen.

L04 RANKIN 21

Hementxe daukagu adibide bat: Herri guztia, erreta. Eta ez edozein herri, euskaldunen herririk maiteena baizik. Horixe zioen Steerrek. Hegazkin alemaniarrek eta italiarrek eraso eta erre zutela. “Begira, lagunak. Hauxe datorkigu.”

L05 BOMBIN 24

Hemen alemaniarren indarra, alemaniarren hegazkinak probatu nahi zituzten. Gerra hurbil ikusten zuten eta gertatzen ari ziren. Hitlerrek gerra egiteko asmoa bazeukan ordurako.

- L06 MAIER 19  
Nire iritziz, eraso hura gerra-krimena izan zen. Richtofenen helburuak zubia eta errepideak ziren, baina berak Errenteriako auzoa ere hartu zuen. Eta horregatik, Errenterian jendea hiltzeko aukera onartzeagatik, gerra-krimena izan zen. Aurrez planeatutako sarraskia zen, handik ez zen ezelako biderik igarotzen.
- L07 SALAS 14  
Zubiaren inguruan erori ziren bonbak, hurbilenekoak, zubi-aurreko bidegurutzekoak esan nahi dut, horiek zubitik bost edo hamar metrora egongo ziren. Lau bomba izan ziren, zubitik hurbil-hurbil. Baina gero, bomba-multzorik handiena zubitik ehun edo berrehun metro harantzago erori zen. Zubiak hamabost metro bakarrik zeuzkan, eta hura jotzeko aukerak... Ezinezkoa zenik ez dut esango, baina zaila bai.
- L08 PEDRAILI 13  
Zubi hura hondatzea oso zaila zen, batez ere jaurtiketa 3.600 metroko garaieratik eginez gero.
- L09 SALAS 14  
Nire iritziz Richtofenek trenbidea hondatu nahi zuen, eta Zornotzarako errepidea, Bilborantz ez igarotzeko. Berak adierazten du hori. Ez du argi-argi esaten, hitz horiekin; baina, idatzitakoaz, asmoa horixe zela aditzera ematen du.
- L10 SALAS 13  
Lur-emaileak, 27an eta 28 14 gorpu lurperatu zituen. Gero, Calzada gaixotegian 45 bat lagun hilko ziren, identifikatuta daude. Eta gero Santa Mariako babeslekuan ere asko hil ziren.
- L11 BOMBIN 12  
Zabor artean zenbat geratu ziren ez dugu jakingo. Zerrenda zehatza egin baino lehen Frankoren indarrak sartu ziren. Ibaian kanoi-danbadak entzuten genituen, Frankorenak kostatik zetozen.
- L12 SALAS 13  
Nik hildakoen zerrendan 126 dauzkat, baina 100 bat izango direla uste dut. 50etik erdi inguruak ezezagunak direlako. Baina erregistro zibilak gerora sartutakoak ere gehitu ditut, eta errepikatuak ez direla pentsatuz, ba 126 dauzkat. Sarritan esan dut baten batek ezagunik, seniderik, lagunik badauka, eta nire zerrendan agertzen ez bada, esateko eta jarriko dudala. Baina inork ez dit inoiz ezer esan.
- L13 ANDONE 9  
Eta gero, hasi ziren horrek, sartunde ta gero esan dotsutena, nire aitte ta ganaduekin, joan ziren, hilekoak batu ,...zatike, kanposanture eroan.  
zati bet, besoa, burue, zatixek, zatiketa, zatike, ...eta gero, etortzen ziren etxera, eta jan ezin bazkaririk.
- L14 BOMBIN 17  
Ez dago errukirik, gerran ez dago errukirik. Gizonak ezelako lotsa barik hiltzen dute.
- L15 BEEVOR 34  
Gernikan zera gertatu zen, atzerriko kazetari bat zegoela, nazioarteko gatazka baten berri ematen. Nazionalek gezurrak zabaldu zituzten, eurek errurik ez zeukatela erakusteko. Horrexek zentratu

zuen, nolabait, gerra zibilaren inguruko propaganda-gerra. Hura, izan ere, mundu-gerra zen nolabait, eta hortxe agertzen zen moduren batean Europa bitan nola zatitu zen. Europa bakarrik ez, mundu osoa, une hartan. Ez da ba harritzekoa Gernika bat-batean halako sinbolo handi bilakatzea. Eta Picassok bere margo famatua egin baino lehenago.

L16 BOMBÍN 21

Ederto ikasi genuen, eta gerora kontuan izan genuen denok; eta orain ere bai: gerrak atsekabea eta heriotza baino ez dakarrela. Horrexegatik daramagu hainbeste urte gerrarik gabe.

L17 SCHULER 15

Condor Legioaren garaipen-sentimenduarekin sartu ziren Bigarren Mundu Gerran; hau da: "Airean garaiezinak gara". Pilotuak heroiak baino askoz gehiago ziren, ia-ia gaurko zineko izarren antzekoak, autografodun txartel eta guzti.

L18 KÖSSINGER 2

Guk beti pentsatzen genuen: "Jainko laztana, hor behekoak gu baino askoz txarrago daude. Gu hemen goian baino eurak behean askoz gehiago hiltzen dira. Guk hor beheko galmendi guztia ez dugu ikusten."

L19 PAOLO MOCCI

Historian lehenengoz egin zela esango nuke: herriaren kontrako bonbardaketa, herriarengan gerraren kontrako erreakzioa sortzeko.

L20 SCHULER 15

Alemaniarra heltzean ohore militar handiekin hartu zituzten Hamburgena eta Berlinen. Goebbelsek 1939ko maiatzean edo ekainean bota zuen abian. Bigarren Mundu Gerran, nazionalsozialisten propagandak behin eta berriro erabili zuen elementu hau.

L21 BOMBÍN 19

"Hau alerta jotzeko da", esaten genuen. "Ikus dezatela frantsesek eta ingelesek guri gertatutakoa, hor ez da amaituko eta."

L22 MAIER 24

Gernikan jazotakoa sarraskia izan zen, gerra-krimena. Nire ustez Gernika horrexegatik da, beste herri batzuekin batera, sinbolo handia. Zera gogoratzen digulako: teknologiak, aurrerapen teknologikoak, armen alorrean behintzat, ondorio ikaragarriak dauzkala. Herri hauetan pentsatuta zera datorkigu gogora, ea gerra nola muga daitekeen, aire-erasoak batez ere. Aurrera egin behar genuke Lurreko Gerrarako Hagako Arautegian, baina orain arte ezer gutxi lortu da. Beharizan hori azpimarratzeko erabiltzen da Gernika.

L23

L24 EMBAXADOREA

Iragan hori onartu behar dut, eta denon aurrean aitortu han parte hartutako hegazkin alemaniarren errua. Zeuei diotsuet, erasoan bizirik geratu zinetenoi, izu haren lekuko izateko. Nire doluminak, jasan behar izandako atsekabeagatik.

L25

